

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

- Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure enpresaren oinarrizko jarduera ekoizpena da (galtzak ondo jostea eta kalitate eta erosotasun onenekoak izatea bezeroentzat). Bigarrenik, webgune eta sare sozialetan egunerokotasun konstante bat eramatea oso garrantzitsua izango da. Gure bezeroen eskaera nahiz galderei ahalik eta azkarren erantzuteko, eta haintzat sarea erabili eta bilatzeko erraza izan dadin. Hortaz gain, arazoak dauden momentuan gatazka hori konpontzeko azkar ibili beharko gara. Azkenik, marketing-ari dagokionez, zabalkuntza egokia izatea premiazkoa da. Horrela, gure enpresak bezero gehiago izateko aukera izango du.

